



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**



ME MO RIA

**2019/2020
IKASTURTEA**



www.mondragon.edu/huhezi





AURKIBIDEA



4

SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA



21

EGOERA EKONOMIKO- FINANTZARIOA



23

FAKULTATEKO LANGILEAK



13

TXOSTEN AKADEMIKOA

- GRADUAK
- GRADUONDOKOAK
ETA ETENGABEKO
PRESTAKUNTZA
- IKERKETA ETA
TRANSFERENTZIA



22

KUDEAKETA- ORGANOAK

SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA

2019-2020 ikasturtea oso ikasturte berezia izan da: COVID-19ak eragindako pandemiaren urtea. Koronabirusak, mundu osoan ez ezik, gurean ere berealdiko eragina izan du. Hasteko, martxoan, beste unibertsitate batzuetan bezala, bertan behera utzi genituen aurrez aurreko saio eta eskola guztiak. Ezohiko egoera horrek bultzatu gintuen, batetik, kolektibo osoa kontuan hartu eta, aldi berean, telelana egitera; bestetik, ikaste- eta irakaste-prozesuetan erabilitako metodologia eta tresna guztiak denbora gutxian egokitzea. Era berean, COVID-19aren kontrako prebentzio-neurriak geureganatzen hasi ginen.



Lan egiteko ereduan eta eskaintza akademikoan ez ezik, ikerketa eta transferentzia alorretan ere sekulako eragina izan zuen pandemiak; izan ere, lotuta geneuzkan hainbat proiektu atzeratu edo bertan behera geratu ziren joan den ikasturtean. Baina elkartasunaren eta talde-lanaren urtea ere izan da COVID-19aren ikasturtea: taldean lan eginda lortu dugu digitalizazioan sakontzea, hezkuntza-eredu berriak indartzea eta online bidezko elkarriketarako espazio berriak sortzea. Etiket lan eginda eta taldean pentsatuta lortu dugu, denon artean, 2020-2021 ikasturtea modu indartsu eta seguruago batean hastea.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) osatzen duten komunitateek eta hainbat interes-taldek parte hartzeko guneak indartu ditugu, ardatz estrategikoetatik abiatuta. Horrela, irakaskuntzako jardueren berrikuntzan bide egiten jarraitu dugu; baita profesionalen prestakuntza-jardueretan eta I+T jardueretan ere. Hori guztia lortzeko, pertsonen garapen profesionala bultzatzea funtsezkoa izan da, eta, noski, baita horretarako bideak jartzea ere. Horrek guztiak identitate kooperatiboa indartzen lagundu digu. Horrela, 2019-2020 ikasturtean, plan estrategiko bat amaitu eta berri bat taxutu dugu, eta etorkizunean aukera eta mugarri izango diren ekintzak definitu.

2019-2020 ikasturteko datu eta gertakizun nabarmenenak jasoko ditugu honako lerro haue-tan:

Arlo akademikoari dagokionez, aurrez aurreko gradu-ikasketetan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Ikus-entzunezko Komunikazioan 939 ikasle izan ditugu guztira. Eta Humanitate Digital Global gradua abian jartzeko pausoak eman ditugu.

Aurrez aurreko graduaz edo gradu presentzialaz gain, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetan egokitzapen-ikastaroak eskaini dira, *blended* modalitate erdipresentzialean. Bestalde, bigarren gradua

edo aipamena eta gradu osoa online egiteko aukera eskaini da ikasturte honetan ere. Bigarren graduan/aipamenean, guztira 111 ikasle izan ditugu, eta, online-graduetan, 92 ikasle. Modalitate erdipresentzialean, beraz, 207 ikasle izan ditugu guztira.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eskaintzen ditugun gradu eta modalitate guztiak kontuan hartuta, 1.146 ikasle izan ditugu 2019-2020 ikasturtean.

Graduondoko ofizialen arloan, 2019-2020 ikasturtean bi master ofizial eskaini dira: batetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterra –bi modalitatetan: duala eta erdipresentziala–. Bestetik, lehenengo aldiz eskaini dugu Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan masterra (Lit), TeamLabsekin elkar-lanean.

Lau aditu-titulu eskaini dira ikasturte honetan: Kooperatibagintzan unibertsitate-aditua; KoopFabrika: Ekintzailatza Sozial Kooperatiboa eta Ekonomia Soziala unibertsitate-aditua; Herrigintzaren Berrikuntzan unibertsitate-aditua; Hezkuntza Kooperatiboan espezializazio-diploma. Graduondoko ikasleak (master ofizialetan nahiz titulu propioetan) 230 izan dira guztira.

Ikasleen mugikortasunari dagokionez, urte berezia izanik, 116 ikasle joan dira atzerrira ikasketak edo curriculum-praktikak egitera. Horietatik 45 Europara joan dira, 40 Latinoamerikara eta 31 Espainiako estatura. Atzerriko 17 ikasle izan dira gurean, ingelesezko mugikortasun-programetan.

Bestalde, etengabeko prestakuntzaren arloan ere hainbat lan egin dira Hezkuntza, Komunikazio eta Kooperatibismoaren arloan. Aipatzekoa da LANKI Kooperatibismoaren Ikertegian ikertegian eskainitako prestakuntza kooperatiboan 40 formakuntza-saio

**IKASLEAK:
GRADU +
MODALITATE
GUZTIAK**

1.146

**GRADU
ONDOKO
IKASLEAK**

230



egin direla (680 parte-hartzaileekin). Hezkuntzari dagokionez, ikastetxeetatik etorritako eskaerari erantzun zaio, eta 2.564 pertsonak hartu dute parte programa horietan.

Ikerketaren arloan, argitalpen ugari egin ditugu 2019-2020 ikasturtean: 74 artikulua argitaratu dira (horietatik 20 inpaktu altuko eta ertaineko zerrendetako aldizkarietan), 11 liburu oso, 22 liburu-kapitulu eta 11 dibulgazio-artikulu ere publikatu dituzte ikertzaileek aurtan. 21 ikerketa-proiektutan parte hartu dugu, eta 63 transferentzia-ekimen gauzatu dira erakunde publiko eta pribatuetan. Horrez gain, 47 ikerketa-jardunaldi antolatu dira. Kongresu eta jardunaldietako parte-hartzea ez da izan beste urte batzuetakoaren parekoa; hala ere, gure ikertzaileek webinar eta artikuluen bidez eman dute egindakoaren berri.

Tesiak egiteko aurreko urteetan izandako liberatze-politikak emaitza onak eman ditu; HUHEZIn dagokieneko 50 doktore ditugu (irakasle-ikertzaileen % 54), eta horietatik 31 akreditatuta daude (% 62). Horrez gain, 18 lankide doktore izateko bidean daude.

HUHEZI Koop. E-ren helburua gure komunitatea osatzen dugun pertsona guztien garapen profesionala

bermatzea da. Ezberdinen arteko lankidetzeta eta osagarritasuna dugu helburu. Pertsonen garapenerako markoari dagokionez, HUHEZIn:

- **Harrera-plan sendoa eskaini diegu langile berriei.**
- **Gaikuntza-planak eta proiektu estra-tegiak errokatu ditugu; parte-hartze altua izan dugu jardun pedagogiko eta ikerketa-egun esanguratsuetan.**
- **Hizkuntza-gaitasunak bultzatzeko eskaintza sendoari eutsi diogu.**
- **Norberaren garapenerako ad hoc eskaerak indartu dira.**
- **Langile doktoregai ikertzaileen eta ikerketa-eremuko garapena berritzeko epe luzeko proiektuak eta gaikuntza-plana gauzatu ditugu (doktorego-programa eta tesi-liberazioak eta ikertzaileen mintegiak antolatu dira).**

2019-2020 ikasturtean, langileen parte-hartzea bultzatzeaz gain, ikasleen parte-hartzea bultzatu nahi

izan dugu. Euskararen inguruko hausnarketa eta motibazioa sortzeko helburuz, hainbat kultura-ekimen egin dira (Euskararen Egunekeo ekitaldiak eta Fakultateko online-jaia, besteak beste). Bestalde, otsailaren 20an, Aretxabaletako campusean, Komunikaldia jardunaldiaren 13. edizioa egin zen; bertan, *Gazteak eta kazetaritza. Nondik dator etena?* gaia landu zen. HUHEZINEMAREN XII. edizioa antolatu da, eta, ikasturteko egoera dela medio, online egin da ekitaldia. Formatua aldatu bada ere, azken urteetako arrakastari eutsi dio, aurkeztutako filmen eta jaialdira konektatutako partaideen kopuruari dagokionez. Hiru egunetan zehar (martxoak 25, 26 eta 27), Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduko 4. mailako ikasleek ekitaldi ugari antolatu dituzte, hala nola proiektzioak, mahai-inguruak eta *master class*ak. Hedabideetan izandako oihartzuna berriro ere bikaina izan da. Aurtengo Euspot euskarazko spot-lehiaketa ere online egin dugu, maiatzaren 28an. Aurtengoa lehiaketa horren 8. edizioa izan da.

Zabalkundea bultzatzeko eta gure lana gizarteratzeko, aurrez aurreko jardunaldiak antolatzeko ezintasunaren aurrean, 25 webinar antolatu dira martxotik aurrera: askotariko taldeek askotariko aktibitateak antolatu dituzte. Horietaz gain, abenduaren 18an eta 19an, Bilbon, *Univercity educating about and with the city* nazioarteko jardunaldia antolatu genuen. Bestalde, urtarrilaren 25an, Queer pedagogiak izeneko jardunaldia antolatu genuen, Bilbon hori ere.

Lleidako Unibertsitatearekin eta Andorrako Unibertsitatearekin elkarlanean, urtarrilaren 27an eta 28an, Modalitate dualean aritzeko tutoreen prestakuntza: zein rol eta zein formazio objektu ikasle garatzeko jardunaldiak antolatu genituen, Eskoriatzan.

Osasuna eta zaintza bultzatzeko, kirol-eskaintza zabal eskaintzen jarraitu dugu. Zerbitzuaren ildo estrategiko nagusia «osasuna sustatzea» izan da aurtur ere, irteerak, ikastaroak, kirola, lehiaketa eta aisialdiko jarduerak albo batera utzi gabe. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Kirol Zerbitzuak 323 erabiltzaile izan ditu 2019-2020 ikasturtean.

Aipatutakoez gain, Dorleta eraikinean obra egin da ikasturtean zehar. Proiektua HUHEZiko hezkuntza-proiektuan ardaztu da.



euspot IX

EUSKARAZKO SPOT LEHIAKETA 2020 euspot.eus

1 2 3 4

GAIA

ZER DAGO JANZTEN DUGUNAREN ATZEAN?

Kontzientziazio kanpaina baterako spotak sortu behar dira, moda azkarrek eragiten dituen ondorio negatiboak ikusarazteko.

20-30 segundo

EPEA
2020ko maiatzaren 13a

OINARRIAK
euspot.eus

SARIAK

Spot onena: 1.000€
Mondragon Unibertsitateko ikasleen spot onena: 500€
Publikoaren saria: 500€
Musika sirkonizazio onenaren saria: 300€
BHKip saria: 250€

AIPAMEN HISTORIKOA

IKUSPEGI KRONOLOGIKOA

1976

ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLA SORTU ZEN.

Ikastolek garai hartan zuten arazo larria (ez baitzen irakasle tituludun euskaldunik) konpondu guran, Hezibide Elkartek – Debagoieneko hezkuntza-kooperatibak batzen zituen elkarteak, alegia – Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zuen. Hasiera hartan, Salamancako Unibertsitate Pontifizioaren ikasgela moduan hasi zen eskolak ematen.

1978

ONESPEN OFIZIALA.

Hezkuntza Ministerioak onartu egin zuen Eskoriatzako Irakasle Eskolaren ikasketa-plana, aurrerantzean Bilboko Unibertsitateari (gero EHU/UPV) atxikita.

1979

LEHEN PROMOZIOA.

39 irakasle irten ziren urte hartan, irakasle-diploma eskuan.

1980

IRAKASLE ESKOLA, KOOPERATIBA.

Bere ingurunean txertaturik, urrats logikoa izan zen eskola kooperatiba bihurtzea.

1981

TITULURIK GABEKO IRAKASLEEN 1. PROMOZIOA.

Ikastoletan edo herri-eskoletan euskaraz irakasle-titulu barik ari ziren 147 maisu-maistrak eskuratu zuten titulua urte hartan. Guztira, titulu bako 700 maisu-maistrak amaitu zituzten ikasketak Eskoriatzako Irakasle Eskolan.

1984

HAURREN GAINEKO DOKUMENTAZIO-ZENTROA.

Sei urte bitarteko haurren gaineko dokumentazioa biltzen, antolatzen eta zabaltzen hasi zen Eskola. Geroago, *Jakingarriak* aldizkaria argitaratzen hasi zen, gai horren inguruan.

1985

IRAKASLEEN BIRZIKLATZE-PROGRAMA.

Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailarekin batera, lanean ari ziren irakasleak egunean jartzeko ikastaroak antolatzen hasi zen Eskola.

1988

BIDEO DIDAKTIKOAK.

Helburu didaktikoekin egindako bideo-bilduma baten lehen alea («Piti gaztagile») argitaratu zen.

1990

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA ADMINISTRAZIOAN.

Ikastaro bereziak antolatu ziren euskal administrazioari funtzionarioen hizkuntza-eskaki-zunik jasoenak lantzeko.

1992

ESKOLA-LIBURUGINTZA.

Euskarazko irakaskuntzan eskola-liburuak behar zirela-eta, dozena bat liburu argitaratu ziren.

1996

HEZKUNTZA BEREZIA.

Hezkuntza-premia bereziak zituzten haurrei irakasteko espezialitatea sortu zen. Eskola ikaslez urri zebilen garaian, ikasle asko erakrri zituen espezialitate honek.

1997

MUREN HUMANITATE FAKULTATEA.

Eskoriatzako Irakasle Eskola Mondragon Unibertsitatearen (MU) Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtu zen. **Humanitateak-Enpresa lizentzia ematen hasi zen.**

1999

ERAIKIN BERRIA.

Hasierako eraikina txiki geratu zela-eta, Gizabidea fundazioak alboko San Viator eraikina (XVII. mendekoa) erosi zuen Humanitateen Fakultatea bertan jartzeko.

LEHEN MASTERRA.

«Enpresa Proiektuen Zuzendaritza» izeneko masterra sortu zen. 400 bat hautagai aur-

keztu ziren, baina 20 bakarrik sartu ziren, galbahe zorrotza igaro ostean.

2000

PSIKOPEDAGOGIA-LIZENTZIA.

Bigarren zikloko lizentzia zen, eta irakaskuntza eta gizarte eleaniztunetan sor daitezkeen arazoei hobeto erantzuteko sortu zen. Lehen urtean 33 ikasle izan zituen.

2001

IKASKETAK, ONLINE.

Psikopedagogia-ikasketak eta master bat sarean jarri ziren.

HUMANITATEAK-ENPRESAKO 1. PROMOTZIOA ekainean irten zen.

BI MASTER BERRIREN ESKAINTZA:

Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologien prestakuntza eta Hezkuntza Zuzendaritza.

LANKI SORTU ZEN, MUko Lankidetzaren Ikertegia. Hiru esparru nagusi izan zituen hasieratik: kooperatibismoa, gizartean esku-hartzea eta garapenerako lankidetzak.

«ESPERIENTZIA KOMUNITARIOEN TRUKE PROGRAMA»:

lehen edizioa antolatu zen Hego hemisferioko komunitateen eta Euskal Herriko eragile kooperatibo eta autoeratuaren artean.

LANKIDETZA: Arizmendiarrietaren eraldaketa-proiektua liburua argitaratu zen.

LANKI ikertegiaren lehen argitalpena izan zen; ordutik aurrera, hainbat argitalpen eta material didaktiko sortu da kooperatibismoaz eta gizartearen erronkez.

2002

Psikopedagogia karreraren barruan **ESKUHARTZE PSIKOPEDAGOGIA** jarri zen abian, 30en bat ikaslerekin.

MUNDUKIDEREN INTERKOOPERAZIO-SISTEMAREN garapenaren bultzatzaile izan zen LANKI ikertegia.

2003

AOI-PBL METODOLOGIA ezartzen hasi zen sistematikoki 1. mailan, Haur Hezkuntza oso-osorik, eta bestelako espezialitateetan ikasgai komunetan soilik.

HEZKUNTZA FISIKOA. Irakasle-ikasketetako espezialitate berria hasi zen, 32 ikaslerekin.

2004

PERTSONA- ETA TALDE-GARAPENERAKO GESTIO-UNITATEA sortu zen.

PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKOA titulazioa ezarri zen.

IRAKASLE BALIOANIZTUNA izeneko ikasketak eskaintzen hasi zen.





2005

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN

lizentzia sortu zen. Karrera honen misio edo eginkizuna komunikatzaile integralak prestatzea da. Lana edonon egiten dutela ere, gai izango dira erakunde horretako era guztietako komunikazio-beharrei erantzuteko. 36 ikaslerekin jarri zen abian lehenengo maila.

«ARRASATEKO KOOPERATIBA ESPERIENTZIAREN ZENTZUAREN GAI-NEKO GOGOETA-PROZESUA» egin zen kooperatibetan. Prozesu haren garapean, LANKI eragile funtsezkoa izan zen. Diagnostiko hartatik abiatuta, eta 2007an MONDRAGON Taldearen Kongresu Kooperatiboan berretsita, azken urteotan kooperatibak biziberritzeko hainbat estrategia jarri dira martxan. Urte berean, «**NORBERE GARAPENA ETA TALDEEN LIDERGOA**» izeneko aditu-titulua ezarri zen.

2006

Irakasle-ikasketetan, **MENDEBERRI PROIEKTUAREN 1. PROMOZIOA** kaleratu zen. «**KULTURARTEKOTASUNA ETA ELEANIZTASUNA XXI. MENDEAN**» ikastaroa eskaini zen. **ABIAN** jarri ziren Euskara Plana eta Multimedia gunea. **GARABIDE ELKARTEA**ren sorreran parte

hartu zen LANKIren bidez. Euskal Herrian gauzatutako hizkuntzen berreskurapenerako estrategiak eta esperientzia Hegoaldeko herri indigenekin partekatzeko plataforma da.

2007

«EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA»

graduondokoa eskaini zen. **HUHEZINEMA**ren lehen edizioa egin zen. HUHEZiiko programako **lehen tesia** aurkeztu zen.

HEZKUNTZA KOOPERATIBO EREDU BERRIAREN diseinua eta inplementazioa hasi zuen LANKIk MONDRAGONeko Gestio Sozialarekin lankidetzan. Harrezkero, preskakuntza kooperatiborako prozesu zabalak ireki dira MONDRAGON Taldeko kooperatibetan. LANKIk, Mundukiderekin batera, elkar-lana abiatu zuen Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimenduarekin (**MST**). Lehenengo Erasmus ikasleak etorri ziren, sei hilabetez, HUHEZIn ikastera.

2008

«IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA»

lizentziaturaren 1. promozioa atera zen. ANECAk **HAUR HEZKUNTZAN GRADUA, LEHEN HEZKUNTZAN GRADUA** eta **IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN GRADUA** onartu zizkion HUHEZlri.

HUHEZIK **URREZKO BIKAIN** ziurtagiria lortu zuen.

«**KOOPERATIBAGINTZA**» **ADITU-TITULUA-REN** lehen edizioa eskaini zen, kooperatibetako eragileak prestatzeko eta kooperatibak biziberritzeko estrategietan eragiteko bokazioz.

2009

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ETA BATXILERGOAN, LANBIDE HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE GISA ARITZEKO GAITZEN DUEN unibertsitate-masterra eta **EKONOMIA SOLIDARIOAREN** masterra eskaintzen hasi ginen.
ANECAK HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANIZTUNETAN unibertsitate-master ofiziala (**EKOMU**) **ETA BERRIKUNTZA DIDAKTIKO METODOLOGIKOKO PROIEKTUEN GARAPENA HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN** unibertsitate-master ofiziala (**BERRIMET**) onartu zizkion HUHEZLri.
Boloniara egokitutako **HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA** graduen inplementazioa.

BAGARA prozesuaren sorrera bultzatu zen LANKlren bidez. Prozesu honen xedea Debagoienean garapen komunitario autoeratu bultzatzea da.

2010

HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANIZTUNETAN unibertsitate-master ofiziala (**EKOMU**) **ETA BERRIKUNTZA DIDAKTIKO METODOLOGIKOKO PROIEKTUEN GARAPENA HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN** unibertsitate-master ofiziala (**BERRIMET**) eskaintzen hasi ginen.
EKONOMIA SOLIDARIOARI BURUZKO MASTERRAren lehen edizioa egin zen, Latinoamerikako garapen sozioekonomikoko esperientzia autoeratu zuzendua.
MU TELEBISTA sortu genuen.

2011

«**JATORRIZKO HIZKUNTZEN ETA IDENTITATEEN BERRESKURAPENERAKO**» **ADITU-TITULUA** martxan jarri zen, munduko komunitate indigenentzat.

2012

Vic-eko Unibertsitateak eta HUHEZIK eskainiko dugun «**BERRIKUNTZA ETA ESKU-HARTZEA HEZKUNTZAN**» **DOKTOREGO-PROGRAMA ONARTU ZIGUTEN** UNIBASQek eta ANECak.

2013

ARETXABALETAKO CAMPUS BERRIKO obrak egin ziren.

«**KOMUNIKAZIOA ERAKUNDEETAN**» **ADITU-TITULUA** eskaintzen hasi ginen.

HUHEZLren **ARETXABALETAKO CAMPUS BERRIAREN ERAIKINA INAUGURATU ZEN**. Vic-eko Unibertsitatearekin batera, «**BERRIKUNTZA ETA ESKU-HARTZEA HEZKUNTZAN**» **DOKTOREGO-PROGRAMA** eskaintzen hasi ginen.

BLENDED MODALITATEAN EGOKITZE-IKAS-TAROAK eskaintzen hasi ginen, diplomadunek graduako titulua lortu ahal izateko.

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA GRADUAK BLENDED MODALITATEAN eskaintzea onartu ziguten UNIBASQek eta ANECak.

Oñatiko Enpresagintza Fakultatearekin batera eskaintzen dugun «**EKONOMIA SOZIALA ETA ENPRESA KOOPERATIBOA**» (**MCOOP**) **UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALA** onartu ziguten UNIBASQek eta ANECak.

2014

Lehenengoz eskaini zen **GRADU OSOA EDO BIGARREN TITULAZIO BAT ONLINE MODALITATEAN** egiteko aukera.

Enpresagintza Fakultatearekin batera, lehenengoz eskaini zen «**GIZARTE EKONOMIA ETA ENPRESA KOOPERATIBOA**» (**MCOOP**) master ofiziala.

BIGARREN HEZKUNTZAKO MASTERRAREN KANPO-AKREDITAZIOA lortu zen UNIBASQen.
HUHEZIKO BARNE KALITATE-SISTEMAREN KANPO-AKREDITAZIOA lortu zen UNIBASQen.

2014
2015

Ikasturteak hasita, **DEKANO BERRIA** aukeratzeko **ZUZENDARITZA-TALDE BERRIA** eta **ANTOLAKETA BERRIA** ere ekarri zituen.

2015
2016

IKASTURTEAN PLAN ESTRATEGIKO BERRIA diseinatu genuen **PROZESU PARTE-HARTZAILE BATEKIN**. Plan Estrategikoan berrikuntza-premia berretsi zen kolektiboan, bai arlo akademikoan, bai ikerketan eta transferentzian, eta 10 proiektu identifikatu ziren.
IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA GRADUOKO BERRIKUNTZA METODOLOGIKOA inplementatzen hasi ginen.

BERRIMET ETA EKOMU MASTERREN KANPO-AKREDITAZIOAK lortu ziren UNIBASQen.

40 URTEAN EUSKAL GIZARTEAN ERAGITEN



2016
2017

Ikasturtean **LEHEN HEZKUNTZA, HAUR HEZKUNTZA ETA IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA** graduen akreditazioak lortu ziren UNIBASQen.

40 URTE bete zituen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. 2016-2017 ikasturtean zehar ekintza ugari antolatu ziren urteurrena ospatzeko.

2017
2018

Ikasturtean, **PROIEKTU ARKITEKTONIKO BERRIAREN DISEINUARI HELDU** genion. Campusaren diseinuan parte hartu zuten Fakultateko langileek eta ikasleek.

2018
2019

Ikasturtetik hasita, **KOLABORATEGIA PROIEKTUA MARTXAN** dago. Hezkuntzan eta Komunikazioan estrategia digitala bultzatzeko asmoarekin, lantaldea osatu da, eta lehenengo proiektuak abiatu dira; buletin elektronikoa, besteak beste.

HUHEZIKO PLAN ESTRATEGIKOAN (2016-2020) jasota geratu zen aldi estrategikoan gradu berri bat diseinatzeko konpromisoa. Hainbat iturritatik edanez (azken urteetan atzerriko unibertsitateetara egindako bisi-tak, gizartearen irakurketa, adituekin egindako kontrastea, HUHEZIkren indarguneak eta etorkizunerako ildoak), gradu berri bat definitu da: **HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK (HDG)**.

2019
2020

Ikasturtean, Plan Estrategiko (2021-2024) berria definitu da.

Dorleta eraikineko obrak egin dira Hezkuntza proiektuan ardaztuta.

IKASKUNTZA ERRAZTEN ETA BERRIKUNTZAN UNIBERTSITATE MASTERRA (LIT) eskaini dugu lehenengo aldiz.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ETA BATXILERGOAN, LANBIDE HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE ARITZEKO GAITZEN DUEN UNIBERTSITATE-MASTERRA modalitate erdipre-sentziazalean eskaini da lehenengo aldiz.

HERRIGINTZAREN BERRIKUNTZAN unibertsitate-adituaren lehenengo edizioa jarri da martxan.

HEZKUNTZA KOOPERATIBOAN espezializazio diplomaren lehenengo edizioa abiatu da.



TXOSTEN AKADEMIKOA



GRADUAK

2019-2020 ikasturtean, aurrez aurreko 203 ikasle berri izan ditugu Hezkuntzako graduatan; horietatik 66 Haur Hezkuntzako graduatan eta 137 Lehen Hezkuntzakoan (bi talde egon dira Haur Hezkuntzan eta lau talde Lehen Hezkuntzan). Bestalde, Ikus-entzunezko Komunikazioko (IKO) graduatan 52 ikasle berri jaso ditugu 1. mailan (eta zenbait lan-sekuentzian banatu dira taldeak). Era berean, graduen ikasketa-plangintzaren barruan prestaturiko irakasle eta komunikatzaileen zazpigarren promozioa aterata da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatetik.

COVID-19aren ondorioz, hainbat egokitzapen egin ditugu hiru graduak urruneko modalitatean egokitzeko, bai moduluen sekuentziazioan eta baita gure ikaste-irakaste prozesuetan ere, ikasleei ahalik eta testuinguru aberatsenak eskaintzeko asmoz.

Nahiz eta ez den ohiko ikasturtea izan, graduen berrikuntza-prozesuak aurrera jarraitu du. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, 3. mailan inplementazioa egin da eskaintza presentzian, eta, erdipresentzian, berriz, 4. mailaraino iritsi gara. IKOri dagokionez, 2019-2020 ikasturtean jada 1. mailan inplementatu da.

Kanpo-praktikei dagokionez, guztira 986 egonaldi izan dira. Gehienak ikastetxeetan, enpresetan edo erakundeetan bertan egin dira, eta beste batzuk urruneko sistemen bidez amaitu behar izan ditugu.

Mugikortasun-programei dagokionez, 2019-2020 ikasturtean 133 ikasle joan edo etorri dira ikasketak edo curriculum-praktikak egitera, bi norabideetan: Fakultatetik kanpora (116 ikasle) eta kanpotik Fakultatera (17 ikasle). Kanpora joan diren ikasleetatik 47 beste unibertsitate batera joan dira ikastera, eta 69 eskoletara eta erakundeetara. Norakoari dagokionez, Europara joan dira 45 ikasle, Latinoamerikara 40 eta Espainiako estatutara 31. Mugikortasuna sustatzeko, akordioak ditugu Europako 65 unibertsitateekin eta 26 eskolarekin, eta Latinoamerikako 3 unibertsitateekin eta hainbat eskola eta erakunderekin. Estatuko ikuspegiari dagokionez, 2019-2020 ikasturtean 27 ikasle joan dira praktikak egitera, Andaluzia, Katalunia,

Madril eta Kanariar Uharteetara batik bat. Bestalde, Vic-eko Unibertsitatean 3 ikasle joan dira SICUE programa egitera, eta 1 Granadako Unibertsitatean. Azkenik, hiru graduatan eskaintzen ditugun nazioarteko programetara 17 ikasle etorri dira, 30 ECTSko sei hileko bat egitera, ingelesez, gure ikasleekin batera.

Mondragon Unibertsitateko fakultateen ikasleen arteko interakzioa eta ikaste-esperientzia diziplinartekoak bizitzeko aukera zabaldu zen, ChangeMakerLab proiektuaren bidez. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko bost ikasle hartu dute parte, Hezkuntzako 2k eta IKOko 3k.

Ikasturte honetan, Txomin Txapel eguneko emanaldia eta HUHEZINEMA ekitaldia online antolatu ditugu.

Martxotik aurrerako ate irekiak eta onarpen-probak ere online egin genituen. Guztira 598 pertsona hurbildu ziren ate irekietara, eta 465 ikasle hartu zuten parte onarpen-probetan.

Ikasketa-plangintza berriak UNIBASQen aurkeztu dira, eta hiru graduetak memoriak idatzi.

HEZKUNTZA-GRADUAK (ONLINE MODALITATEA / MODALITATE ERDIPRESENTZIALA)

2019-2020 ikasturtean, 132 ikasle berri izan ditugu eskaintza erdipresentzian.

Hiru eskaintza izan dira martxan ikasturte honetan:

1. EGOKITZE-IKASTAROAK

Egokitze-ikastaroen zazpigarren edizioa egin da 2019-2020 ikasturtean. Aurretik diplomadunak zirenei gradu-titulua lortzeko aukera ematea izan da helburua. Gradu ikasketek graduondokoa ahalbidetzen dute, eta, gero, doktorego-ikasketak egitea. Beste alde batetik, aukera zabaltzen dute lan-merkatuari begira. Halako ikasketen hartzailea irakaslea izaten da.

2. BIGARREN GRADUA / AIPAMENA

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatuei zuzendutako eskaintza da. Eskaintza ezberdina izan da ikaslearen helburuen arabera:

Bigarren Gradua lortzeko	HHtik LHra	LHtik HHra
Bigarren Aipamena lortzeko	HH - HH HH - AH	LH - LH LH - AH LH - HB LH - HF

Lehen aldiz eskaini dugu Entzumena eta Mintzaira aipamena Lehen Hezkuntza Graduan, eta guztira 12 ikaslek parte hartu dute.

3. HEZKUNTZA-GRADUAK ONLINE

Modalitate honen bidez, hezkuntza-graduak (Haur eta Lehen Hezkuntza) online eta euskaraz lortzeko aukera eskaini nahi izan da.

Hainbat kolektibori zuzenduta dago eskaintza hau:

- Aurretik goi-mailako ikasketak eginda daudenei (diplomadun, lizentziadun, ingeniari edo arkitektoei)
- Helduentzako unibertsitateko sarrera-proba gainditu dutenei
- Lanbide Heziketako goi-mailako moduluak (hezkuntza alorrekoak) + 5 urteko eskarmentua dutenei
- Goi-mailako kirolariei

Hainbat forotan eman da eskaintza erdipresentzialaren berri: webgunean, sare sozialetan, irratian, ate irekietan... Eta horiek isla izan dute ikasle kopuruetan. Guztira, 132 matrikula berri izan ditugu 2019-2020 ikasturtean.

Hiru modalitateen datuak:

	Ikasle berriak (LH/HH)
Egokitze-ikastaroak	LH: 1 HH: 4
Bigarren gradua / aipamena	LH: 75 HH: 13
Online graduak	LH: 27 HH: 12





UNIBERTSITATE-MASTERRAK

2019-2020 ikasturtean, guztira 132 ikasle izan ditugu HUHEZIn eskaini ditugun lau unibertsitate-masterratan.

BERRIKUNTZA DIDAKTIKO METODOLOGIKOKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA KUDEAKETA HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN (BERRIMET) unibertsitate-masterra eta **HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANIZTUNETAN (EKOMU)** unibertsitate-masterretan ez dugu ikasle berririk onartu. 28 ikasle izan ditugu 2019-2020 ikasturtean.

IKASKUNTZA ERRAZTEN ETA BERRIKUNTZAN UNIBERTSITATE MASTERRA (LIT) eskaini dugu lehenengo aldiz ikasturte honetan. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta TEAMLABS ikaskuntza laborategiak elkarlanean bultzatutako masterra 16 ikaslerekin hasi da. Masterraren helburu orokorra zera da: hezkuntza-eraldaketako prozesuak bultzatzeko, kudeatzeko eta ikertzeko gai izango diren tituludunak prestatzea, proposamen berritzaileetatik ikaskuntzarako bide ematen duten askotariko prestakuntza-testuinguruetan eta lankidetzazko inguru profesionaletan sareak sortuz. Masterra modalitate erdipresentzialean egin da, eta saio presentzialak garatu dira Bilboko BBF eraikinean eta TeamLabsen Madrilgo egoitzan.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ETA BATXILERGOAN, LANBIDE HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE ARITZEKO GAITZEN DUEN unibertsitate-masterraren 11. edizioa egin da. Bi modalitatetan eskaini da estreinakoz masterra: aurrez aurre eta erdipresentzialki. Aurrez aurreko modalitatean, 37 ikasle osatutako taldea aritu da, lau espezialitatetan (Hizkuntza eta Literatura, Teknologia, Natura Zientziak eta Matematika, Humanitateak eta Gizarte Zientziak). Aipatu bezala, lehenengo aldiz, eskaintza erdipresentzialeko modalitatea izan dugu masterrean, 53 ikasle berrirekin. Modalitate horretan ere lau espezialitatetan izan ditugu ikasle taldeak. Koordinaziorako espazioak, talde eragilea nahiz tutore-mintegiak baliatu dira 2019-2020 ikasturtean modalitate berria, planifikatu, diseinatu, inplementatu, ikertu eta ebaluatzeko.

KOOPERATIBISMOAN ETA KUDEAKETA SOZIOENPRESARIALEAN UNIBERTSITATE-MASTERREKO onespina lortu dugu Unibasqen. 2019-2020 ikasturtean, masterra diseinatzeko prozesuari ekin zaio. LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak kudeatuko du masterra.

ADITU-TITULUAK

Lau aditu-titulu eskaini dira ikasturte honetan: Kooperatibagintzan unibertsitate-aditua; KoopFabrika: Ekintzailatza Sozial Kooperatiboa eta Ekonomia Soziala unibertsitate-aditua; Herrigintzaren Berrikuntzan unibertsitate-aditua; Hezkuntza Kooperatiboan espezializazio-diploma.

KOOPERATIBISMOAN UNIBERTSITATE-ADITUA

Kooperatibismoko aditu-tituluaren 12. edizioa egin da ikasturte honetan. 24 ikaslek hartu dute parte, guztiak kooperatibetako ordezkariak. Kooperatibismoaren sustapena eta ideia kooperatiboaren transmisioa ipar duen prestakuntza-eskaintza da, eta ikasleari eza-gutza teoriko-praktiko sendoa eskaintzea du helburu, errealtate kooperatiboa ulertzeko eta ingurune kooperatiboak indartu eta sustatzeko. Mondragon Taldeko Gestio Sozialaren eta HUHEZIKo LANKI iker-tegiaren arteko lankidetzaren emaitza da.

KOOPFABRIKA: EKINTZAILETZA SOZIAL KOOPERATIBOKO ETA EKONOMIA SOZIALEKO UNIBERTSITATE-ADITUA

Kooperatiba Fabrika programaren 4. edizioa gauzatu da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean. Mondragon Unibertsitateko LANKI ikerlegiak eta Olatukoop-ek antolaturiko egitasmoa da, eta ekintzailatza sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala sustatzeko helburua du.

2019-2020 ikasturtean, guztira 49 lagunek eman dute izena programa osoan, eta 25 proiektu sortu dira kolektiboki. Era berean, 50 erakundetik gora saretu dira prozesuan zehar: 7 erakunde antolaketan, 25 formakuntzan, eta 10 esperientzia arrakastatsu eza-gutu edo bisitatu dira. 24 bidelagunen lantaldea kontsolidatu da bidelagun-eskolaren bidez, eta hainbat ikerketa- eta sistematizazio-lan egin dira.

HERRIGINTZAREN BERRIKUNTZAN UNIBERTSITATE-ADITUA

Herrigintzaren Berrikuntzan unibertsitate-adituaren lehenengo edizioa martxan jarri dugu 2019-2020 ikasturtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean. Eskaintza horren helburua zera da: herrigintzan ari diren pertsonen gure herriaren egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko ezagutza eta gaitasuna indartu eta balio publiko ahalik eta handiena sor-

tzea. Alde horretatik, aditu-tituluaren asmoa ikasleak ahaldundzea da, euren herrigile-lana ahalik eta formatzaileena eta eraginkorrena izan dadin. Hori dela eta, aditu-tituluak zera eskaintzen du: eraldaketa globalak ulertzen laguntzea, euskalherrigintzan inplikazioak dituzten heinean, baina gure berezitasunak ere aintzat hartuta, erronkak guretik identifikatuz egingarriak eta lorgarriak izan daitezen.

Aditu-tituluaren bokazioa honako hau da: epe erdira gai izatea euskalherrigintzaren marko gaurkotua partekatzen duten pertsona eragileen sarea eragiteko. Horrela, zoru partekatua sortuko dugu etorkizun hurbilean estrategikoak izango diren esparru giltzarrietako eragileen artean. Lehenengo edizioan, 11 ikasle izan ditugu: udalgintzako ordezkari politikoak, Gipuzkoako Foru Aldundietako ordezkari politikoak, euskal alderdi politikoaren ordezkariak eta gizarte zibil antolatua osatzen duten eragileen ordezkariak.

HEZKUNTZA KOOPERATIBOAN ESPEZIALIZAZIO-DIPLOMA

Hezkuntza Kooperatiboan espezializazio-diplomaren lehenengo edizioa jarri da martxan 2019-2020 ikasturtean. Titulazioa Brasilgo Giramundo programaren barruan eskaini da. Giramundo programak, Paraibako Estatuko Hezkuntza, Zientzia eta Teknologiako Idazkaritzaren bidez, hainbat beka eskaintzen ditu Paraibako ikastetxeetako irakasleek nazioarteko unibertsitateetan formakuntza jaso dezaten hainbat gairen inguruan. Fakultatera etorri dira mugimendu kooperatiboaz eta testuinguru honetan lantzen ari garen berrikuntza pedagogikoaz ikastera eta hezkuntza-esperientziak aurrez aurre ezagutzera. Eskaintzaren helburua zera da: lanean ari diren irakasleak formatzea estrategia kooperatibo eta pedagogikoetan, diploma amaierako proiektuen bidez beren testuinguruetara eramán ditzaten berrikuntza pedagogiko eta sozialerako proposamenak. Bide batez, etorri diren irakasleen eta haien ikastetxeen arteko saretzean ere eragin nahi da. Lehen edizioan, 14 ikasle izan ditugu, guztiak Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Eta harremanak sendotu dira Paraibako Hezkuntza, Zientzia eta Teknologiako Idazkaritzako 3 teknikariren bisita jaso ondoren, zuzenean ikusi ahal izan baitute zein diren espezializazio-diplomaren ekarpenak.

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

LANKI ikertegiak **kooperatibismoaren gairako prestakuntza-saioak** eskaintzen ditu MONDRAGONeko Gestio Soziala sailarekin lankidetzan. Kooperatibetako askotariko hartzaileei –organoetako (Kontseilu Errektore, Kontseilu Sozial eta Zuzendaritza Kontseiluko) kideei eta bazkide guztiei – zuzenduriko saioak dira. Oro har, kooperatibismoaren ezaugarrietan sakontzea eta kooperatibismoa sustatzea dute helburu. 2019-2020 ikasturtean zehar 40 formakuntza-saio egin dira (guztira, 320 formakuntza-ordu eta 680 parte-hartzaile).

Hezkuntzari dagokionez, ikastetxeetatik etorrirako eskaerei erantzun zaie. Eskaerak hainbat gairekin lotuta egon dira: kulturartekotasuna hezkuntzan, hezikidetzan, genero-berdintasuna, hezkuntza ez-sexista, hezkuntzaren lanketa eta eleaniztasuna, ahozko hezkuntzaren garapena, hezkuntza-berrikuntza eta alderdi metodologikoak. 2.564 ikasle izan ditugu programa horietan.



IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

Fakultateko diru-sarreraren % 17,58 inguru ikerketa- eta transferentzia-jardueratik etorri da 2019-2020 ikasturtean; 1.787.134 €, hain zuzen ere. Nabarmendu beharra dago, beraz, HUHEZiko ikerketak eta transferentziak % 7ko igoera izan dutela 2019-2020 ikasturtean, aurreko ikasturtearekin alderatuta.

LAN-ARLOAK

Fakultateko ikerketa eta transferentzia bi norabideko continuum batean kokatzen dira, ezagutzaren sorkuntzatik transferentzia teknologikora joz eta, alderantziz,

transferentziatik ikerketara. Ikerketa- eta transferentzia-jardueren xedea ezagutza sortzea eta zabaltzea, berrikuntza sustatzea eta gizartean eragitea da. Eta, hori egiteko, ezinbestekotzat jotzen dugu unibertsitateko ikertzaileen eta erakundeetako profesionalen arteko elkarlana, guztiak baitira protagonista erantzun berrien bilaketan. Gaur egun garatzen ari garen ikerketa- eta transferentzia-proiektuen lan-esparruak Hezkuntzan, Komunikazioan eta Kooperatibismoan kokatzen dira, eta hiru lerro nagusi ditugu:

- Kooperatibismoa, autoeraketa eta giza garapen iraunkorra

- Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturantzun eta eleaniztunetan
- Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntza inklusi-boan

Lerro horiek **askotariko proiektuen** bidez garatzen ditugu. Administrazio publikoak zein erakunde pribatuak finantzatutako 21 **ikerketa-proiektu** izan ditugu 2019-2020 ikasturtean (15 deialdi lehiakorretan lortutakoak, eta beste 6 hitzarmen edo kontratu bidezkoak). Horien artean, hauek nabarmenduko genituzke:

Europa

- *Promoting gender Balance and Inclusion in research, innovation and training (PLOTINA)* (H2020, 2016-2020). MU mailako proiektua
- *Mainstreaming Procedures for Quality Apprenticeships in Educational Organisations and Enterprises (ApprenticeshipsQ)* (Erasmus+). MU mailako proiektua

Eusko Jaurlaritza

- HUHEZiko Hizkuntza Tutoretza programaren ebaluazioa ikasleen eta tutoreen begiradatik
- Hezkuntza kooperatiboaren ikerketa eta garapena (gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntzarako laguntzak)

Gipuzkoako Foru Aldundia

- Gobernantza kooperatiboaren marko berriaren inplementazioa: parte-hartze integrala eta erantzunkidetasunerako ikerketa-ekintza («Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa», 2019)
- Gobernantza kooperatiboa eta interkooperazioa: talde kooperatiboaren ekosistemen gaineko ikerketa-ekintza («Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa», 2019)
- Kooperatiba Fabrika: Ekintzailatza Sozial Kooperatiboa eta Ekonomia Soziala Gipuzkoan sustatzeko programa. Formazioa eta Ikerketa-sistematizazioa («Enpresetan pertsonen talentua eta ikaskuntza sustatzea» programa, 2019)
- ERAGIN: Gipuzkoako Talentua aztertze eta sustatzeko dinamikak («Enpresetan pertsonen talentua eta ikaskuntza sustatzea» programa, 2019)

- Hezkuntza Pertsonalizatua: Big Dataren eta IAren bidez ikasleen kompetentzien neurketa eta hobekuntza garatzea, Gipuzkoako egoera sozioekonomikoa hobetzeko palanka («Enpresetan pertsonen talentua eta ikaskuntza sustatzea» programa, 2019)
- Gipuzkoako Gazteen Sare Sozialen Faktoria (Gazte-RIA) (Etorkizuna Eraikiz GipuzkoaLab programaren 2019ko deialdia)
- BATERATZEN 2019/2020: balio eta portaera kooperatibo-konstruktiboen sustapena antolakuntzen emaitzak hobetzeko («Enpresetan pertsonen talentua eta ikaskuntza sustatzea» programa, 2019)
- Herrigintza: bilakaera historikoa eta erronka berriak (foru-dekretu bidezko dirulaguntza zuzena)

TRANSFERENTZIA

2019-2020 ikasturtea eraginkorra izan da transferentziarentzat. Alde batetik, Hezkuntza Berrikuntzarako Zentroa (HBZ) sortu da, hezkuntzaren eremuan sustatu nahi dugun berrikuntza eta hezkuntza-erakundekin landu nahi dugun lankidetzaren suspertzeko. Beste alde batetik, askotariko transferentzia-proiektuak izan ditugu, eta lantalde handi bat bildu da proiektu horietan lan egitera. Ikasturte honetan 63 transferentzia-proiektu garatu ditugu zenbait enpresa, hezkuntza-erakunde eta saretan. Hauek dira 2019-2020an jorratutako gaiak:

Hezkuntzaren esparruan: berrikuntza-prozesuak Haur Hezkuntzan; berrikuntza metodologikoa Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan; eskolako kanpo-espazioen eraldaketa; eraldaketa digitala eskoletan; Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua diseinatzeko irizpideak eta tresnak; hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza biziberritzeko prozesuak; arloetako hizkuntzen lanketa ikaskuntza sakonean eragiteko; hezkuntza-prozesu parte-hartzaileak erakundeetan; hezkidetzaren lanketa eskoletan; irakurketa-idazketaren hastapena HH-LH trantsizioan; ikastetxeko ebaluazio-sistemen diseinua; irakurriaren ulermena lantzeko irizpideak eta praktikak; hizkuntzen trataera integratua; garapen metodologikoa eta elkarrekintza ahozko kompetentzietan eragiteko; proiektu bidezko ikaskuntza; *mindfulness* protokoloa eta lanketa



47 JARDUNALDI ETA EKITALDI ANTOLATU DIRA

eskolan; ikaskidetza eskolan; ikasleen motibazioa eta zeharkako konpetentziak unibertsitatean; berrikuntza metodologikoa hezkuntza ez-formalean.

Komunikazioaren esparruan: 2DEO proiektuen aholkularitza eta EITB taldeko hainbat talderen lan-prozesuen definizioen diseinua.

Kooperatibagintzaren esparruan: gizarte-berrikuntzaren arloko aholkularitza; kooperatibentzako formakuntza kooperatiboaren diseinua eta inplementazioa; gizarte-eraldaketa inguruko hausnarketa-prozesua enpresa kooperatiboan; bazkide berrientzako eta organo sozialentzako formakuntza kooperatiboa.

ARGITALPENAK ETA ZABALKUNDEA

2019-2020 ikasturtean, guztira 74 argitalpen izan dira. Horietatik 20 dira inpaktu altuko eta ertaineko zerrendetako aldizkarietan argitaratutako artikulua eta prestigidun argitaletxeetan argitaratutako 13 liburu eta liburu-kapitulu. Guztira 21 artikulua, 11 liburu oso, 22 liburu-kapitulu, 11 dibulgazio-artikulu publikatu dituzte ikertzaileek aurtan. Horietatik guztietatik 38 euskaraz argitaratu dira, eta 45 eBiltegian daude, Mondragon Unibertsitateko biltegi digitalean, sarbide irekian. Argitalpen horietan, hainbat gai jorratu dira: berrikuntza-prozesuak, digitalizazioa, eleaniztasuna, metodologiak, Haur Hezkuntzako prozesuak, ikaste-eta irakaste-prozesuak, kooperatibagintza, komunikazioa eta euskal hedabideak. Nazioarteko zein estatuko kongresuetan aurkeztu diren 9 komunikazioek ere fakultateko ikerketa-lerroak elikatu dituzte.

Horrez gain, ikasturte honetan **47 jardunaldi eta ekitaldi** antolatu dira. Antolatu ditugun jardunaldien artean daude, besteak beste, webinar irekiak (25), kongresuak (13) eta hezkuntza-berrikuntzarekin lotutako jardun pedagogikoak eta ikerketa-egunak (9).

HIRUGARREN ZIKLOA

Doktorego-programak

2019-2020 ikasturtean, 24 lagun matrikulatu dira HUHEZiko doktorego-programan.

- **BERRIKUNTZA ETA ESKU-HARTZEA HEZKUNTZAN** doktorego-programa: Universitat de Vic - Central de Catalunya (UVic-UCC) unibertsitatearekin batera, Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego-programaren inplementazioa garatzen ari gara. Programa horretan, 24 doktoregai egon dira matrikulatuta, eta, epealdi honetan, doktoregai batek egin du bere tesiaren defentsa, Itziar Arregik, eta Bikain-Cum laude kalifikazioa lortu du.

Doktoregaien formakuntza sustatzeko asmoz, bi astetik behin ikerketa-mintegiak antolatu dira, haien ikertzaile-profilari laguntzeko. Doktore-programaren ibilbidean, HUHEZIn jadanik 50 doktore ditugu (irakasle-ikertzaileen % 54), eta horietatik 31 akreditatuta daude (% 62). Eta 18 lankide doktore izateko bidean daude.

EGOERA EKONOMIKO- FINANTZARIOA

2019-2020 ikasturteko sarrerak 10.165,36 mila eurokoak izan dira, eta gastuak 9.927,30 mila eurokoak. Beraz, aldeko emaitza 238,06 mila eurokoa izan da.

Ikasturte honetan egindako inbertsioak 2.699,26 mila eurokoak izan dira: 2.628,03 mila euro Dorleta eraikinen hedapenera eta birmoldaketara bideratu dira, eta gainontzeko 71,23 mila euroak ikasturteko ohiko inbertsioetara; finantzaketa Mondragon Taldeko

FEPletatik, Gizabidea Fundaziotik eta berezko funtsetatik edo funts propioetatik etorri da.

Balantzeari dagokionez, Egoera Balantzearen Aktibo eta Pasiboa, 2020-08-31n, 13.273 mila eurokoa da.

HUHEZI ZENBAKITAN (*) milaka eurotan	2019/2020
Gradu presentzialetako ikasleak	939
- Lehen Hezkuntza	481
- Haur Hezkuntza	263
- Ikus-entzunezko Komunikazioa	195
Blended modalitateko ikasleak	207
Unibertsitate-masterretako ikasleak	132
Aditu-tituluetako ikasleak	98
Doktoretzako ikasleak	24
Nazioarteko mugikortasuneko ikasleak	133
- HUHEZItik atzerrira joandako ikasleak	116
- Atzerritik HUHEZItira etorritako ikasleak	17
Mantentze-aurrekontua (*)	10.165,36
Ohiko inbertsioak (*)	71,23
Langileak	119
Prestakuntzan dauden ikerlariak (PIF)	9

KUDEAKETA-ORGANOAK

ANTOLAKETA-EGITURA

DEKANOA

Begoña Pedrosa

ZUZENDARITZA KONTSEILUA

Begoña Pedrosa: Fakultateko dekanoa

Aitziber Arregi: Zuzendari akademikoa

Nagore Ipiña: Ikerketa eta Transferentzia arloko Zuzendaria

Eneritz Garro: Hezkuntza-berrikuntza lerroko Zuzendaria

Ainara Artetxe: Hezkuntza-berrikuntza lerroko Zuzendaria

Goio Arana: Komunikazio lerroko Zuzendaria

Ainara Udaondo: LANKI lerroko eta Profesionalen Prestakuntzako Zuzendaria

Ainhua Leturiaga: Administrazio eta finantza Zuzendaria

KONTSEILU ERREKTOREA

Amaia Agirre: Lehendakaria

Amaia Pavon: Lehendakariordea

Nagore Iñurrategi: Idazkaria

Kideak:

Oihana Otaduy

Amelia Barquín

Miren Erdozia

Javier Marcos

Jose Ramon Zubizarreta

Xabier Iturralde

Iñaki Tejedor

Uxue Zarandona

Naroa Alijostes



FAKULTATEKO LANGILEAK

Hau guztia ez litzateke posible izango proiektu honetan inplikatu diren eta parte hartu duten pertsona hauen guztien konpromiso sendorik gabe:

AGIRRE GARCIA **NEREA** ALONSO AMEZUA **IDURRE** ALVAREZ HUERTA **PAULA** ANTON USTARITZ **ENEKO** APRÁIZ ANSOLA **MARIKARMEN** ARANA ARRIETA **GOIO** AREBIOTORRE LANDETA **EUNATE** AREXOLALEIBA BITERI **JULEN** ARISTI NARBAIZA **JON** ARRATIBEL INSAUSTI **NEKANE** ARREGI LANDA **ITZIAR** ARREGI IRIBECAMPOS **AITZIBER** ARREGI MURGIONDO **XABIER** ARRESE ERRASTI **GOTZONE** ARRIARAN OLALDE **IÑIGO** ARROYO SAGASTA **AMAIA** ARTETXE ARANAZ **AINARA** ASTIGARRAGA AGIRRE **IDOIA** ASTIGARRAGA ETXEBARRIA **EUGENIO** AZKARATE ITURBE **OXEL** AZKUE LETE **IKER** AZPEITIA EIZAGIRRE **AGURTZANE** AZURMENDI PEREZ DE ARENAZA **HAIZEA** BARANDIARAN ARTEAGA **ALEXANDER** BARANGUAN YARZA **MIREN** BARNES **JULIA** DIANA BARQUIN LOPEZ **AMELIA** BAZTAN MIGUEL **ASIER** BEITIA SASIAIN **LOREDI** BELATEGI UNZUETA **ONINTZA** BERGARA EGUREN **JOKIN** BIAIN BIDARTE **AMAIA** BIKUÑA MUNDUATE **AGURTZANE** BONILLA BERMEJO **MARI CARMEN** CABALLERO RAMIREZ **IZASKUN** CARMONA IGARTUA **UNAI** CARPINTERO MARTIN **ANA** DIAZ BIZKARGUENAGA **KOLDO** DOMINGUEZ OLABIDE **PERU** EGAÑA CASAS **IRATXE** EGAÑA OSA **TXEMA** EGIZABAL OLLOKIEGI **DIEGO** EIZAGIRRE EIZAGIRRE **ANDONI** ERRAZKIN VICENTE **AITOR** ESCANDON LUCEA **EUNATE** ESKIBEL MONTERO **NAGORE** ESNAOLA ILLARRETA **LARRAITZ** ETXABURU OSA **MIKEL** FALLON **SINEAD** FERNANDEZ BUENO **AMAIA** FLORES PUGA **BEÑAT** GALAR PEREZ DE ONRAITA **LAURA** GALINDEZ NAFARRATE **EDURNE** GALLARDO BOLAÑOS **ENTXO** GALPARSORO GARCIA **ROSA MARIA** GARCIA BLAZQUEZ **ITZIAR** GARCIA FERNANDEZ **LETICIA** GARRO LARRAÑAGA **ENERITZ** GASTAÑAZATORRE GORROTXATEGI **IDURRE** GOIKOETXEA AGIRRE **NEKANE** GONZALEZ ARENAZA **AINHOA** GONZALEZ ATUCHA **PATRICIA** ARANZAZU GOSTIN ELORZA **ANDRES** HERRAN GARCIA **MAIALEN** HERNANDEZ LLONA **XABIER** IBARRONDO DEL CANTO **ASIER** ILLARRAMENDI BEITIA **MALEN** IMAZ AGIRRE **AINARA** IMAZ ALIAS **OIER** IMAZ GANZARAIN **ITZIAR** IMAZ REKONDO **OIHANA** INSAUSTI AMIANO **ARIANE** IÑURRATEGI IRIZAR **NAGORE** IÑURRATEGI LEON **NEKANE** IPIÑA LARRAÑAGA **NAGORE** IRIBAS PARDO **HARITZ** IRIZAR MEZO **ASIER** JIMENEZ ARRIETA **OLAIA** KANPANDEGI BERROTARAN **ARITZ** KAREAGA IRAZABALBEITIA **ARIANE** LARRAÑAGA ELORZA **AINHOA** LARREA ARANA, **MIREIA** LARREA HERMIDA **IÑAKI** LASKURAIN BIDABURU **LEIRE** LAUZURIKA ARRONDO **ASIER** LERSUNDI PEREZ **AMAIA** LETURIAGA LETONA **AINHOA** LEZETA RUIZ DE ALEGRIA **ION** LOPEZ DE PARIZA MARTINEZ DE SALINAS **ANDREA** LOPEZ SALAS **NEREA** LOYOLA IDIAKEZ **AITZOL** MADINABEITIA MEDRANO **MONIKA** MAGUREGI SANCHEZ **ZURIÑE** MARTIN RETEGI **JURDANA** MARTINEZ DE LAGOS MENIQUE **AITZIBER** MARTINEZ GORROTXATEGI **AGURTZANE** MATA OYANGUREN **OIHANA** MENTXAKATORRE ODRIÓZOLA **JON** MONGELOS GARCIA **ARANTZA** ORTEGA SUNSUNDEGI **IGOR** OTADUY MARAURI **OIHANA** OZAETA ELORZA **ARANTZA** PAVON ARRIZABALAGA **AMAIA** PEDROSA LOBATO **BEGOÑA** PEREZ LIZARRALDE **KARMELE** PORTILLA ZALDIBAR **UNAI** QUINTAS QUINTAS **MARTA** RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA **IÑIGO** RODRIGUEZ GARITANO **JONE** ROZAS ELIZALDE **IXIAR** RUIZ DE AZUA GALDOS **EDURNE** SALEGI ARRUTI **EIDER** SANCHEZ MORAN **YERA** SANCHEZ MURUETA **ARITZ** SANTA CRUZ ELORZA **SIRATS** SARASUA MARITXALAR **JON** SAROBE EGIGUREN **AITZIBER** TORREALDAY GALLARRETA **AMAIA** TORRES LETE **MAIALEN** UDAONDO ALBERDI **AINARA** URIARTE ZABALA **LEIRE** URIZAR ZUGAZAGOITIA **ANE MIREN** VITORIA GALLASTEGI **JOSE RAMON** ZABALA IBARRA **ANE MIREN** ZAPIRAIN RETEGI **XABIER** ZUBEROGOITIA ESPILLA **AITOR** ZUBIA MUXIKA **JUAN JOSE** ZUBIA ZUBIZARRETA **NEREA** ZUFIAURRE ASTIGARRAGA **MIRENE**



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Dorleta, z/g
20540 ESKORIATZA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu

Otalora 31
20550 ARETXABALETA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 31 40

harrera.huhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu/huhezi

ENTITATE LAGUNTZAILEA

